



UDAL LEGEINTZALDIRAKO OINARRIEN AKORDIOA

2015-2019

ACUERDO DE BASES DE POLÍTICA MUNICIPAL



Erreenteria
Irabaziz
● ● ●

eh Bildu
Orereta/Erreenteria



EHBILDU ETA ERREENTERIA IRABAZIZ-en ARTEKO AKORDIOA: ERALDAKETA POLITIKO ETA SOZIALAREN ALDE

ACUERDO ENTRE EHBILDU Y ERREENTERIA IRABAZIZ: POR UNA TRANSFORMACIÓN POLÍTICA Y SOCIAL

Orereta-Erreenteriako EH Bilduk eta Erreenteria Irabaziz taldeak sinatutako akordio honek eskaera bati erantzun nahi dio, gure ustez Erreenteriako herritar gehienek nahi duten eraldaketa politiko eta soziala lortzeko eskaerari, alegia.

Guk uste dugu Erreenteria berri bat sor daitekeela, to-kikotik abiatuta gizarte bidezkoago bati eta babesgabeanak babesteko gai delako sozialki kohesionatuta dagoen gizarte bati ekarpena egiten dion Erreenteria, pertsonen interesei erantzuten dien garapen sozioeconómico iraunkorren eredu defendatzen duen Erreenteria, eta pertsonen nahiz herriek erabakitzeko duten gaitasuna partaidetza politikoaren ardatz nagusi gisa errespetatzen duen Erreenteria.

Akordio hau Erreenteriako Udalaren gobernarritasun-akordioa da, baina ez dugu nahi bi alderdiren batura soilik eta bakarrik izatea. Erreenteriaren alde egiten dugun etorkizuneko apustua partekatzen duen gehiengoaren batura izan nahi dugu. Gune bakoitzaren nortasuna errespetatuz, gune horiek osatzen dituzten alderdien batura aritmetikotik haratago doazen gune berriak sortu nahi ditugu. Gure ustez, Erreenterian badaude hori egin ahal izateko baldintzak.

1.- TESTUINGURU OROKORRA ETA TOKIKOA

Egungo sistema Estatuaren eredu politikoari, lurrade-ereduari, erakunde-ereduari, eredu ekonomikoari edo sozialari eragiten dion izugarritzko krisia igartzen ari da. Krisi sistemikoaren egoera horrek aldatzko eta eraldatzeko une bati irekitzen dizkio ateak. Gure esku dago egungo egoeraren inflexio- eta haus-tura-puntuaren lortzea eta beste egoera batera igarotzea non herritarrak eta herriak izango diren aldaketa politiko eta sozialaren protagonistak. Herritarren interesak eta interes publikoak defendatuz eraiki behar da etorkizuna, ez, ordea, elite politikoa eta ekonomikoa defendatuz.

El presente acuerdo suscrito por Orereta – Erreenteriako EH Bildu y Erreenteria Irabaziz pretende responder a una demanda que busca la transformación política y social que entendemos mayoritaria entre la ciudadanía de Erreenteria.

Creemos que es posible una Erreenteria que partiendo desde lo local aporte a una sociedad más justa, cohesionada socialmente porque es capaz de proteger a las personas más desamparadas, que defiende un modelo de desarrollo socioeconómico sostenible que responda a los intereses de las personas, y que respete la capacidad de decidir de las personas y de los pueblos como eje central de la participación política.

El presente acuerdo es un acuerdo de gobernabilidad del Ayuntamiento de Erreenteria, pero no queremos que sea única y exclusivamente la suma de dos partes. Queremos ser la suma de la mayoría de quienes comparten nuestra apuesta de futuro por Erreenteria. Queremos construir nuevos espacios que, respetando la identidad de cada uno, vayan más allá de la suma aritmética de las partes que los integran. Pensamos que en Erreenteria se dan las condiciones para hacerlo posible.

1.- CONTEXTO GENERAL Y LOCAL

El actual sistema está atravesando una enorme crisis que afecta al propio modelo político, territorial, institucional, económico o social del Estado. Esta situación de crisis sistémica abre las puertas a un momento de cambio y de transformación. De nosotras y nosotros depende conseguir un punto de inflexión y de ruptura de la situación actual, para pasar a un escenario donde la ciudadanía y los pueblos son los protagonistas del cambio político y social. El futuro se ha de construir sobre la defensa de los intereses de la ciudadanía, de intereses públicos, y no de una élite política y económica.



Akordio hau sinatu duten bi indarren ustez, gaur egun erabaki behar dugu jendearen eta pertsonen demokraziaren alde edo eliteen demokraziaren alde egingo dugun; giza eskubide guztiak bereizketarik gabe defendatuko ditugun edo giza eskubideak ukatuko ditugun; zerbitzu publikoak eskainiko ditugun edo zerbitzu horiek merkaturatuko ditugun; herritarrek eta herriek erabakitzeko duten ahalmena errespetatuko dugun edo gaitasun hori ukatuko diegun; pertsonari babes soziala emango diogun kohesio sozialaren formula gisa edo babes sozialaren sistema osoa deuseztatuko dugun; pertsonen zerbitzura dagoen ekonomia produktiboaren alde egingo dugun edo gutxi batzuen zerbitzura dagoen ekonomia especulativoaren alde egingo dugun; azken batean, egun egoera zeharo aldatuko dugun edo funtsean ezer aldatzen ez duten egokitzapen txiki batzuk egingo ditugun.

Egoera hori toki-eremura ere eraman daiteke. Orain, aurreko egoera batekiko haustura sendotzeko aukera bat ireki da herrien eremuan. Aurreko egoera horrek tokiko eragile batzuen laguntza izan zuen irauteko eta oraindik ere badu eragile haien laguntza. Badakigu Erreenteriaren errealtitate soziologikoa oso desberdina dela nortasun-sentimenduari dagokionez, baina, era berean, uste dugu gehiengoaren iritzia dela etorkizun duina ukatzen digun egoera hau irauli egin behar du gula.

Bien visto esto, que en el mundo político actual de Erreenteria los hermanos que se presentan tienen una visión de la situación que no se basa en sentimientos o pertenencias identitarias, sino en la defensa de derechos individuales y colectivos que permiten a las personas y a los pueblos un desarrollo pleno como tal. Estamos convencidos y convencidas de que existe una nueva masa crítica en esta sociedad, un nuevo espacio sociológico en Erreenteria, que demanda alianzas políticas que sean capaces de transformar la realidad.

Badakigu zaitasun handiak daudela ekintza politikoko gune berri bat sortzeko. Badakigu, gainera, iraganeko motxilak eragozpen ere izan daitezkeela. Baina, halaber, badakigu errealtitatea eraldatu nahi badugu, ezinbestekoa dela ekintza politikoko aliantza eta modu berriak bilatzea. Apustu egiteko garaia da. Arriskuak hartzeko garaia da.

Para las dos fuerzas firmantes del presente acuerdo nos encontramos ante una situación donde toca decidir si se opta por una democracia de la gente y de las personas o una democracia de las élites; entre la defensa de todos los derechos humanos sin distinción o la negación de los mismos; entre servicios públicos o mercantilización de los mismos; entre el respeto a la capacidad de decisión de la ciudadanía y de los pueblos o su negación; entre la protección social de la persona como fórmula de cohesión social o la desintegración de todo el sistema de protección social; entre una economía productiva al servicio de las personas o una economía especulativa al servicio de unos pocos; en definitiva, entre romper con la actual situación o realizar tímidos ajustes que en el fondo nada cambian.

Esta situación también es trasladable al ámbito local. Se ha abierto en el ámbito local una oportunidad de consolidar una ruptura con una situación que también encontró y encuentra apoyos en algunos agentes locales. Somos conscientes de que la realidad sociológica de Erreenteria es muy diversa en cuanto a su sentimiento identitario, pero a su vez consideramos que somos una mayoría los que compartimos la necesidad de romper con una situación que nos niega un futuro digno.

Como resultado obvio, el espacio que estas dos fuerzas políticas ofrecen a la ciudadanía de Erreenteria no se sustenta en cuestiones de sentimiento o pertenencia identitarias, sino en la defensa de derechos individuales y colectivos que permite a las personas y a los pueblos su pleno desarrollo como tal. Estamos convencidos y convencidas de que existe una nueva masa crítica en esta sociedad, un nuevo espacio sociológico en Erreenteria, que demanda alianzas políticas que sean capaces de transformar la realidad.

Somos conscientes de las grandes dificultades que conforma generar un nuevo espacio de acción política. Somos conscientes incluso que las mochilas del pasado pueden llegar a ser un obstáculo. Pero también somos conscientes de que si queremos transformar la realidad es necesario buscar nuevas alianzas y formas de acción política. Es tiempo de apostar. Es tiempo de asumir riesgos.



2.- AKORDIOAREN PRINTZIPIOAK

Honako printzipio hauek izango dira akordio honen ezaugarriak eta ekintza politikoaren gida eta erreferentzia:

1.- Akordio estrategikoa: Akordio hau une hone-tako apustu politikoa da, baina denboran irauteko bokazioa du. Badakigu prozesu politikoek, hots, eraldaketa politikoko eta sozialeko prozesuek, hautes-kunde-garaiak gaindituko dituzten eraldaketa ideologikoko eta mentaleko prozesuak behar dituztela. Egia da akordio hau datozen lau urteetarako gobernarritasun-akordioa dela, baina egia da, halaber, akordio honek gune soziala eratu nahi duela, denboran area-gotuko dena eta eraldaketa politiko eta sozial sakona gauzatzeko gai izango dena.

2.- Eredu politiko eta sozial berria lotura-elementu gisa: Akordio honetan aipatu dugunet, badakigu bi indarren artean desberdintasunak egon daitezkeela nortasun-alderdian edo lortu nahi den lurralde-ereduan. Nolanahi ere, uste dugu eskubide indibidualetan eta kolektiboen defentsa aliantza politiko honen trakzio- eta lotura-elementua dela.

Bi alderdiak ziur gaude egungo sistema atzean utzi behar dela eta egungo eredu politikoa, ekonomikoa eta soziala gaindituko duen egiturazko aldaketa bat behar dela. Pertsonen eskubideak eta premiak gutxi batzuen interes ekonomiko eta politikoen aurretik egongo diren gizartea sortzeko premiak elkartzen gaitu; zerbitzu publikoak pertsonen eskubideen eta Errenerteriako kohesio sozialaren berme gisa indartzeko premiak elkartzen gaitu; ekonomia soziala, elkarlaneko sistema kooperativista eta ekimena ez ezik, langileen ekintza ere sustatzen dituen garapen sozioeconomikoaren ereduak elkartzen gaitu; banka etikoak protagonismo berezia hartzen duen finantza-sistemak elkartzen gaitu; jatorriari dagokionez desberdina den eta desberdina izate hori kohesio sozialaren elementu bihurtzen duen gizartea defendatzeak elkartzen gaitu; Errenerterian adiskidetzea, bizikidetza eta bakea ez ezik, Giza Eskubideekiko erabateko errespetua ere bilatzeak elkartzen gaitu; eta eskubide kulturalak eta hizkuntza-eskubideak defendatzeak elkartzen gaitu.

Horixe da elkartzen gaituen printzipo inspiratzailea, ekintza politikoaren gune berria indartzen duena eta denboran nagusitu beharko duena banantzen gaituzten elementuen gainetik.

2.- PRINCIPIOS DEL ACUERDO

Los principios que caracterizarán el presente acuerdo y que serán la guía y referencia de la acción política son los siguientes:

1.- Acuerdo estratégico: El presente acuerdo se presenta como una apuesta política del momento pero con vocación de que perdure en el tiempo. Somos conscientes de que los procesos políticos, los procesos de transformación política y social, necesitan de procesos de transformación ideológica y mental que superan los propios tiempos electorales. Es cierto que el presente acuerdo es un acuerdo de gobernabilidad para los próximos cuatro años, pero también es cierto que el presente acuerdo persigue la conformación de un espacio social que se vaya incrementando en el tiempo, y que sea capaz de llevar a cabo una profunda transformación política y social.

2.- Un nuevo modelo político y social como elemento de unión: Tal y como se ha mencionado en el presente acuerdo somos conscientes de que puedan existir entre ambas fuerzas posibles diferencias en la cuestión identitaria o incluso en el modelo territorial que se persigue. Ahora bien, consideramos que la defensa de los derechos individuales y colectivos son el elemento tractor y de unión de esta alianza política.

Nos une la firme convicción de la necesidad de una ruptura del sistema actual, de un cambio estructural que supere el actual modelo político, económico y social. Nos une la necesidad de la creación de una sociedad donde los derechos y las necesidades de las personas se antponen a los intereses económicos y políticos de unos pocos; nos une la necesidad de fortalecer los servicios públicos como garantía de los derechos de las personas y de la cohesión social de Errenerteria; nos une un modelo de desarrollo socioeconómico donde se promueve la economía social, el sistema colaborativo y cooperativista, y donde se promueve la iniciativa y la acción de los y las trabajadoras; nos une la defensa de un sistema financiero donde la banca ética adquiere un protagonismo especial; nos une la defensa de una sociedad diversa en cuanto a origen, que convierte esa diversidad en elemento de cohesión social; nos une la búsqueda de la reconciliación, la convivencia, la paz y el respeto absoluto a los Derechos Humanos en Errenerteria; y nos une la defensa de los derechos culturales y lingüísticos.



3.- Kalitate oneko zerbitzu publikoak indartzea: Herritarren interesei erantzuten dien eta babesgabesgia-egoeretan edo babesgabetasun-egoeretan herritarrak babestuko dituzten zerbitzu publikoak eta administrazio publikoa defendatzen dugu.

Oso arriskutsuak diren garaiak bizitzen ari gara, Ongizate Egoera desegiten ari den garaia eta zerbitzu publikoak pribatizatzen eta merkaturatzen ari diren garaia. Testuinguru horretan, eta babesgabetasun sozialeko arriskua agerikoa denez, toki-administrazio indartsuari eusteko eta hura sustatzeko konpromisoa hartzen dugu, bere eskumenaren eremuetan pertsonen zerbitzura dauden kalitate oneko zerbitzu publikoek eusteko gizarteko sektore sozial behartsuenak babesteko gai den toki-administrazioa, hain zuzen ere. Soilik administrazio publiko indartsu baten bitarte berma daiteke Erreenteriako kohesio soziala, eta administrazio publiko hori, halaber, hiriaren garapen sozioekonomikoaren bermea izango da.

4.- Herritarren partaidetzan oinarritutako gizarte: Argi dago ordezkaritza politikoaren krisia dagoela. Partitokraziak, orain, ez du gehiengo soziala ordezkatzen. Horregatik, akordio honek partaidetza politikoaren egungo eredua gainditu nahi du eta demokrazia parte-hartzalearen eredura igaro nahi du, non herritarrek protagonismoa izango duten eguneko erabakietan ere.

Horri gagozkiola, herritarrek eta herriek aukera izan beharko dute beren eguneroko bizitzari eragiten dioten gaiei buruz erabakitzeko. Soilik lortu ahal izango da gizartea kohesionatua eta erabat demokratikoa izatea gizarte horretako herritarrei erabateko ahalmena ematen zaienean haiei eragiten dieten gaiei buruz erabakitzeko.

3.- ALDERDI POLITIKO SINATZAILEEN KONPROMISOAK

Arestian aipatutako printzipioen arabera, akordio hau sinatu duten indarrek honako konpromiso hauek hartu dituzte:

a) Erreenteria 2025 Plan Estrategikoa bultzatzea: 2013. urteko azaroan, Erreenteria 2025 Plan Estrategikoa aurkeztu zen 300 pertsona baino gehiagoren aurrean. Erreenteriaren historian inflexio-puntu bat izan nahi duen eta 2025. urterako ibilbi-

Este es el principio inspirador de lo que nos une, que fortalece el nuevo espacio de acción política, y que habrá de prevalecer en el tiempo frente a aquellos elementos que nos separan.

3.- Fortalecimiento de unos servicios públicos de calidad: Defendemos unos servicios públicos y una administración pública que responda a los intereses de la ciudadanía y que la proteja en las situaciones de desamparo o desprotección.

Estamos viviendo tiempos preocupantemente peligrosos, tiempos de descomposición del Estado del Bienestar y de privatización y mercantilización de los servicios públicos. En este contexto, y ante el evidente riesgo de desprotección social, nos comprometemos a mantener y promover una fuerte administración local, que sea capaz en sus ámbitos de competencia de mantener unos servicios públicos de calidad y al servicio de las personas, y de proteger a los sectores sociales más desfavorecidos de la sociedad. Solo mediante una administración pública fuerte se puede garantizar la cohesión social de Erreenteria, que a su vez será la garantía del propio desarrollo socioeconómico de la ciudad.

4.- Una sociedad basada en la participación ciudadana: Existe una evidente crisis de representación política. La partitocracia ha dejado de ser representativa de la mayoría social. Por ello, el presente acuerdo busca superar el actual modelo de participación política, pasando a un modelo de democracia participativa donde la ciudadanía adquiere el protagonismo también en las decisiones del día a día.

En este orden, la ciudadanía y los pueblos han de poder decidir sobre los asuntos que afecten a su vida cotidiana. Solo es posible una sociedad cohesionada y profundamente democrática cuando se le otorga a sus ciudadanos y ciudadanas la capacidad absoluta de decisión sobre las cuestiones que les afecten.

3.- COMPROMISOS DE LAS FORMACIONES FIRMANTES

En base a los principios antes señalados, las fuerzas firmantes del presente acuerdo adoptan los siguientes compromisos:



de-orria gidatzen duen Plan hori herritarren partaidetzako prozesu baten ondoren egin zen. Prozesu horrek urtebeteko iraupena izan du eta 268 eragile sozialek, sindikalek, politikoek eta kulturalek hartu zuten parte.

Errenerteria 2025 Plan Estrategikoan 31 jardun-ildo daude, eta oinarrizko hiru bloketan bildu ditzakegu: pertsonak babestea, pertsona horien ahalmenak garatuko dituzten politikak bultzatzea eta politika horiek garatzeko guneak sortzea; industria astunetik sormenean oinarritutako ekonomiara igarotzea; eta hiri erakargarria bilatzea.

Acordio hau sinatu dugun indar politikook uste dugu dokumentu honek gure udalerriaren ibilbide-orria izan behar duela, baina ez soilik hurrengo legealdirako, baita datozen urteetarako ere. Dokumentuaren sendotasunean sinisten dugu, bereziki funtsezko bi arrazoirengatik:

1.- Lehenengo arrazoia, dokumentuaren edukia bera da: Errenerteriako premiei modu integralean erantzuten dien dokumentua da. Anbizio handiko dokumentua da, jauzi kualitatiboa bilatzen duena hautes-kunde-zikloetatik haratago doan etorkizuna ezartzen duelako. Eta egiturazko krisialditik garapen soziekonómikoko egoera berri batera doan trantsizioa lortu nahi duen dokumentua da.

2.- Bigarren arrazoia dokumentua egiteko modua da: Dokumentu honen gaitasun handiena da herriaren ikuspegitik eta herriko herritarren partaidetzarekin egin dela. Edukia bezain garrantzitsua da urte oso batean garatutako bidea; izan ere, lortu nahi denari buruzko kontzientzia kolektiboa harrarazi du, eta, horrek erabateko aldaketa dakar partaidetza politikoari buruzko ikuskeran.

Behin hori esanda, bi indar politikoen adierazi nahi dute dokumentu hau ez dela dokumentu estatikoa, baizik eta dinamikoa dela, ekarpen berrietara eta gizarte-alorreko edo denbora-alorreko zirkunstantzia berrietara irekita dagoena.

b) Herritarren premiei erantzungo dien Administrazio gardena eta eraginkorra lortze aldera: Zerbitzu publikoetan eta kalitate oneko administrazio publikoan sinisten dugu, herritarren premiei eta pertsonen babesari erantzuteko modu gisa. Administrazio publiko eraginkor baten bitartez soilik lortu ahal

a) Impulso del Plan Estratégico Errenerteria 2025:

En noviembre del año 2013 fue presentado ante más de 300 personas el Plan Estratégico Errenerteria 2025. Este Plan, que pretende ser un punto de inflexión en la historia de Errenerteria y que marca la hoja de ruta hasta el año 2025, fue elaborado tras un proceso de participación ciudadana de un año de duración y que contó con la participación de 268 agentes sociales, sindicales, políticos y culturales.

El Plan Estratégico Errenerteria 2025 contiene 31 líneas de actuación que podríamos englobar en tres bloques fundamentales: la protección de la persona, el impulso de políticas que desarrollen sus capacidades y la generación espacios para su desarrollo; el tránsito de una industria pesada a una economía basada en la creatividad; y la búsqueda de una ciudad atractiva.

Las fuerzas políticas firmantes del presente acuerdo entendemos que este documento ha de ser la hoja de ruta de nuestro municipio, no solo para la próxima legislatura, sino también para los próximos años. Creemos en la fortaleza del documento, especialmente por dos razones fundamentales:

1.- El primero, el propio contenido del documento: Es un documento que responde de una manera integral a las necesidades de Errenerteria. Es un documento ambicioso, que busca un salto cualitativo al establecer un horizonte que va más allá de los ciclos electorales. Y es un documento que busca una transición de una crisis estructural a una nueva situación de desarrollo socioeconómico.

2.- El segundo, el modo de elaboración del documento: La gran virtud de este documento radica en que ha sido elaborado desde una perspectiva de pueblo, y con la participación ciudadana del pueblo. Tan importante es el contenido, como el camino desarrollado a lo largo de todo un año, toda vez que ha hecho adquirir una conciencia colectiva sobre lo que se sigue, y supone un cambio radical en la concepción de la participación política.

Dicho esto, ambas fuerzas políticas quieren señalar que este documento no es un documento estático, que es dinámico, abierto a nuevas aportaciones y a nuevas circunstancias sociales o temporales.

b) Hacia una administración transparente, eficaz y que responde a las necesidades de la ciudadanía:



izango dugu sektore publikoaren pribatizazio-joerei aurre egitea.

Presazko neurri gisa, bi indarrok konpromisoa hartzen dugu herritarrok artatzeko leihatila bakarreko zerbitzu bat irekitzeko. Era horretan sahestu egingo baitira eskaintzen den zerbitzuaren kalitatea kaltetzen duten zaitasun burokratikoak.

Udalaren eta herritarren arteko harremanak zuzena, azkarra eta eraginkorra izateaz gain, komunikatzeko eta parte hartzeko nahiko bide izan behar ditu. Horretarako, Informazioaren Gizartea eta Herritarren Partaidetza Saila sortuko dugu; Sail hori herritarrei arreta emateko zerbitzuaz, Udalaren irudiaz eta Udalak herritarrekin duen komunikazioaz eta herritarrek udal-kudeaketan duten partaidetzaz arduratuko da. Era berean, konpromisoa hartzen dugu Udal Erregelamendu Organikoa aldatzeko, herritarren partaidetza Udala kudeatzeko elementu nagusi gisa txertatzeko. Eta, halaber, Auzo Batzarrak eta Aholkularitza Kontseiluak indartzen jarraituko dugu –eta Gizarte Zerbitzuen Aholkularitza Kontseilua eta Herritarren Segurtasunerako Aholkularitza Kontseilua sortzen–.

Azkenik, eta administrazio eraginkorra izan dadin, konpromisoa hartzen dugu gaur egun azpikontratuta dauden zerbitzuak publiko egiteko egon litekeen aukerak aztertzeko.

c) Pertsonek eta pertsonentzat pentsatutako hiria lortze aldera: Gure ekintza politikoaren ardatz nagusia giza duintasunaren erabateko nagusitasuna da, eta hori soilik lortzen da bizitza duina izateko oinarrizko premiak asetzeko modua bermatuz.

Horri dagokionez, eta azken lau urte hauetan egin den bezala, konpromisoa hartzen dugu Gizarte Larraldietarako Laguntzak bermatzeko, baita laguntza horiek Eusko Jaurlaritzak estaltzen ez baditu ere.

Era berean, eta etxebizitza lehen mailako oinarrizko premia denez, konpromisoa hartzen dugu etxegabetzerik gabeko hiria izatearen aldeko apustua egiten jarraitzeko. Udalak konpromisoa hartuko du eta gure herrian etxegabetzerik ez izateko beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu.

Ildo horretatik, konpromisoa hartzen dugu gure udalerrian hutsik dauden etxebizitzak alokairu-erregimean eskaini ahal izateko beharrezkoak diren neurriak

Creemos en unos servicios públicos y una administración pública de calidad, como forma de responder a las necesidades de la ciudadanía y a la protección de las personas. Sólo mediante una administración pública eficaz seremos capaces de combatir las tendencias de privatización del sector público.

Como medida más urgente ambas fuerzas nos comprometemos a impulsar la apertura de un servicio de atención a la ciudadanía, con una ventanilla única, evitando así complicaciones burocráticas que empeoran la calidad del servicio que se ofrece.

La relación entre el Ayuntamiento y la ciudadanía ha de ser directa, rápida, eficaz y con canales suficientes de comunicación y participación. A tal efecto, crearemos el Departamento de Sociedad de la Información y Participación Ciudadana que se encargará del servicio de atención ciudadana, de la imagen y de la comunicación del Ayuntamiento con los ciudadanos y las ciudadanas, y de la participación ciudadana en la gestión municipal. Así mismo, nos comprometemos a modificar el Reglamento Orgánico Municipal para incorporar la participación ciudadana como un elemento central de la gestión del Ayuntamiento. Y también, continuaremos fortaleciendo los Consejos Asesores – y creando el Consejo Asesor de Servicios Sociales y el Consejo Asesor de Seguridad Ciudadana – y las Asambleas de Barrios.

Por último, y en la búsqueda de una administración eficaz, nos comprometemos a estudiar las posibilidades que pudieran existir para publicizar los servicios que actualmente se encuentran subcontratados.

c) Hacia una ciudad pensada desde las personas y para las personas: Establecemos como eje central de nuestra acción política la prevalencia absoluta de la dignidad humana, y eso solo se consigue garantizando las necesidades básicas para una vida digna.

A este respecto, y tal y como se ha venido haciendo en los últimos cuatro años, nos comprometemos a garantizar las Ayudas de Emergencia Social, incluso en el supuesto de que éstas no sean cubiertas por parte del Gobierno Vasco.

Así mismo, y siendo la vivienda una necesidad básica de primer orden, nos comprometemos a seguir apostando por ser una ciudad sin desahucios. El Ayuntamiento se comprometerá y adoptará las medidas que



hartzeko, gaur egun dagoen alokairuko etxebizitzen eskariari erantzun ahal izateko.

Nolanahi ere, guk uste dugu pertsonen babes sozialari dagokionez XXI. mendean dagoen erronka handiena lankidetza publiko komunitario egoki batekin asmatzea dela, baita pertsonen premiei erantzun integrala ematea ere. Ildo horretatik, gure ustez funtsezkoa da Iztieta hasitako eta Plan Estrategikotik eratorritako proiektu pilotuarekin jarraitzaela.

Pertsonen ahalmenen erabateko garapenean sinisten dugu. Pertsonen premiei eta haien erabateko garapenari erantzuteko gai den kalitate oneko hezkuntzan sinisten dugu, eta beren ahalmenak dituzten herritar ahal-dunduengen sinisten dugu, bereziki gazteengan. Horri dagokionez, eta Udalak Eusko Jaurlaritzarekin batera dituen eskumenen esparruan (% 60 eta % 40 ikastetxe publikoetan obrak egiteko eta konpontzeko), konpromisoa hartzen dugu, orain arte bezala, ikastetxeak duinak izaten jarraitzeko beharrezkoak diren obrak eta konponketak egiten jarraitzeko, baita obra horietako batzuk Eusko Jaurlaritzak bere gain hartzan ez baditu ere. Orobak, kultura herritarrengana hurbiltzearen aldeko apustua egingo dugu, baita goialdeko auzoetan, hau da, Beraunen, Galtzarabordan eta Kaputxinoetan Kultura Etxe bat eraikitzearen aldeko apustua ere, Plan Estrategikoan bilduta dagoenaren arabera.

Horri gagozkiola, gure ustez ezinbestekoa da gazteek parte hartzea haiei eragiten dieten politikak garatzen, eta, horregatik, konpromisoa hartzen dugu gazteek parte hartzeko prozesu bat gauzatzeko Gazteriaren Plan Estrategikoa idazteko.

Bestalde, ingurumena errespetatzen duen hirian sinisten dugu, eta, horretarako, txirrindularien, oinezkoen eta garraio publikoaren mugikortasuna sustatzen jarraituko dugu. Gure udalerriak fracking-ik gabeko udalerria eta Europa eta Amerikako Estatu Batuen arteko Merkataritza eta Inbertsiorako Hitzarmenaren (TTIP) eraginik ez duen gunea izan behar du. Era berean, guk uste dugu energia eta hondakinak direla gaur egungo gizarteeek dituzten bi erronka handiak, eta, horregatik, guk konpromisoa hartzen dugu 2016. urtean gaikako bilketa % 60 izan dadin lortzeko politikak garatzeko, eta konpromisoa hartzan dugu, halaber, Energia Iraunkorraren aldeko Ekintza Plana erabat garatzeko. Azkenik, guk uste dugu funtsezko dela Oiartzun ibaia berreskuratzea eta berpiztea gure udalerriaren egiturazko elementu gisa.

sean necesarias para que ningún desahucio se pueda producir en nuestro pueblo.

En este mismo orden, nos comprometemos a adoptar las medidas que sean necesarias para que las viviendas vacías existentes en nuestro municipio puedan ofrecerse en régimen de alquiler, dando respuesta así a una demanda de viviendas de alquiler actualmente existente.

Ahora bien, consideramos que el gran reto del siglo XXI en la protección social de las personas se encuentra en acertar en una buena colaboración público comunitaria y en dar una respuesta integral a las necesidades de las personas. En este orden, consideramos fundamental continuar con el proyecto piloto iniciado en Iztieta y que deriva del Plan Estratégico.

Creemos en el pleno desarrollo de las capacidades de las personas. Creemos en una educación de calidad, que sea capaz de dar respuesta a las necesidades de las personas, y a su pleno desarrollo, y creemos en unos ciudadanos y en unas ciudadanas empoderadas con sus propias capacidades, especialmente la juventud. En este orden, y en el marco de las competencias del Ayuntamiento conjuntamente con el Gobierno Vasco en un 60% y en un 40% en las obras y reparaciones de las escuelas públicas, nos comprometemos como hasta ahora a seguir realizando las que fueran necesarias para mantener unas escuelas dignas, incluso en el supuesto de que parte de esas obras no sean asumidas por el Gobierno Vasco. Así mismo, apostamos por acercar la cultura a la ciudadanía, y por la construcción de una Casa de Cultura para los barrios altos de Beraun, Galtzaraborda y Kaputxinos, tal y como se recoge en el Plan Estratégico.

En este mismo orden, consideramos imprescindible la participación de la juventud en el desarrollo de las políticas que les afectan, y es por ello, por lo que nos comprometemos a llevar a cabo un proceso de participación juvenil para la redacción de un Plan Estratégico de la Juventud.

Por otra parte, creemos en una ciudad respetuosa con el medio ambiente, y para ello seguiremos potenciando la movilidad ciclista, peatonal y del transporte público. Nuestro municipio ha de ser un municipio libre del fracking y un espacio libre de la influencia del TTIP (Tratado Transatlántico de Comercio e Inversiones). Así mismo, consideramos que tanto la



Argi dago gizarte-bazterketa badago ez dela kohesio sozialik izango, ezta pertsona guztien eta, bereziki, sexu desberdineko pertsonen arteko berdintasuna bermatzen ez bada ere. Ezinbestekoa da herritarra sentsibilizatzea berdintasunak duen garrantziari buruz, baita berdintasuna gizarte kohesionatua eraikitzeko funtsezko elementu bihurtzeari buruz ere. Ildo horretatik, funtsekoa da emakumearen ahal-duntzea sustatuko duten politikekin jarraitza, eta, horretarako, konpromisoa hartzen dugu Emakumeen Etxea sortzeko.

d) Prebentzioan oinarritutako udaltzaingoaren eredu bat lortze aldera: Prebentzioa da herritarren segurtasuna lortzeko tresnarik hoherena. Erreakzioan edo errepresio hutsean oinarritutako polizia-eredu batetik eredu proaktibo batera igaro behar da; eredu horrekin udaltzainak modu aktiboan esku hartuko du eta delituak egitea saihestuko da. Segurtasuna zeharka eta modu integralean ulertu behar da; horretarako, pertsonen errealityetan eta premietan jardungo da, eta hezkuntza zibikoa sustatuko da zehapenaren gainerik.

Horri gagozkiola, eredu berri hori, eta bereziki, Auzoko Udaltzaingoaren eredua bultzatzen jarraitzearen aldeko apustua egiten dugu. Horretarako, proiektuan sakontzen jarritzeko beharrezkoak diren neurriak hartzeko konpromisoa hartzen dugu. Beste neurri batzuen artean, konpromisoa hartzen dugu Herritarren Segurtasunerako Aholkularitza Batzordea sortzeko.

4.- GOBERNUA ERATZEA

Akordio hau sinatzeak berekin dakar, halaber, bi alderdiek konpromisoa hartza Erreenteriako Udalean Gobernua eratzeko. Kultura Arloa, Gizarte Zerbitzuen Arloa (Zahar-egoitzaren Presidentzia eta Politika Aniztasuna, Garapenerako Lankidetza eta Giza Eskubideen Azpialloa barne) eta Ingurumen Arloa Erreenteria Irabaziz taldeak hartuko ditu bere gain. Era berean, Erreenteria Irabaziz taldearen bozeramaila bigarren alkateordea izango da.

EH Bilduk bere gain hartuko ditu Alkatetza eta Garapen Sozioekonomikoa eta Merkataritza, Presidentzia eta Barne Erregimena, Kirolak, Hezkuntza eta Gazteria, Euskara, Hirigintza eta Hiri Mantenimendua, Udaltzaingoa, Trafikoa eta Garraioak, Ogasuna eta Berdintasuna Arloak eta Informazioaren Gizartea eta

energía como los residuos son los dos grandes retos que tienen las sociedades actuales, y es por ello por lo que nos comprometemos a desarrollar políticas que nos lleven a la recogida selectiva de un 60 % en el año 2016, y nos comprometemos así mismo al pleno desarrollo del Plan de Acción de la Energía Sostenible. Por último, consideramos fundamental la recuperación y revitalización del río Oiartzun como elemento vertebrador de nuestro municipio.

De la misma manera que no hay cohesión social si hay exclusión social, tampoco la hay si no se garantiza la igualdad entre todas las personas, y en especial, entre las personas de diferente sexo. Es necesario sensibilizar a la ciudadanía de la importancia de la igualdad, de convertir la misma en el elemento esencial de la construcción de una sociedad cohesionada. En esta línea, es fundamental continuar con políticas que fomenten el empoderamiento de la mujer, y para ello nos comprometemos a la creación de la Casa de la Mujer.

d) Hacia un modelo de policía local basado en la prevención: La prevención es la mejor de las herramientas de seguridad ciudadana. Se ha de pasar de un modelo policial basado en la reacción o en la mera represión, a un modelo proactivo, donde el agente interviene activamente y se evita la comisión de los delitos. La seguridad ha de ser entendida de una manera transversal e integral, actuando sobre las realidades y las necesidades de las personas, y potenciando la educación cívica frente a la sanción.

En este orden, apostamos por seguir impulsando este nuevo modelo y en especial el modelo de Policía Local de Barrio. A tal efecto, nos comprometemos a adoptar las medidas que sean necesarias para seguir ahondando en el proyecto. Entre otras medidas, nos comprometemos a la creación del Consejo Asesor de Seguridad Ciudadana.

4.- CONFORMACIÓN DE GOBIERNO

La firma del presente acuerdo conlleva a su vez el compromiso de ambas partes de conformar Gobierno en el Ayuntamiento de Erreenteria. Las áreas de Cultura, Servicios Sociales (incluyendo Presidencia de la Residencia de Ancianos y Ancianas y la Subárea de Política de Diversidad, Cooperación al Desarrollo y Derechos Humanos) y Medio Ambiente serán asu-



Herritarren Partaidetza sail sortu berria. Halaber, Liburutegia eta Artxibategia Arloa EH Bilduk hartuko du bere gain, eta Kultura Sailarekin harreman formal eta erregularra izateko mekanismo bat ezarriko da, baita Erreenteria Musikal Patronatuaren kasuan ere. Patronatu horren presidentzia EH Bilduk izango du.

EH Bilduk 5 laguneko presentzia izango du Tokiko Gobernu Batzordean, eta, Erreenteria Irabaziz 2 lagunek ordezkatuko dute organo horretan.

Halaber, bi indar politikoetako ordezkariek beren gain hartuko dute Erreenteriako Udala Mankomunitateetan ordezkatzea.

5.- AKORDIOAREN ESPARRUA ETA JARRAIPENA

Akordio honetan udalak datozen lau urteetan izango dituen jardun-ildo handiak bildu dira. Hala eta guztiz ere, akordio honek ez du alde batera uzten bi indar politikoen programetan bildutako proiektuak eta legealdian zehar bultzak litzkeenak garatzea.

Bi talde politikoetako zinegotziek udal-politiken jarrapena egiteko mekanismoak ezarriko dituzte jartzen den edo diren mekanismoaren edo mekanismoen aldizkakotasun erregularraren oinarritik abiatuta.

Erreenteria, 2015eko ekainaren 11

midas por Erreenteria Irabaziz. A su vez el portavoz de Erreenteria Irabaziz será el segundo Teniente Alcalde.

EH Bildu asume la Alcaldía y las áreas de Desarrollo Socioeconómico y Comercio, Presidencia y Régimen interior, Deportes, Educación y Juventud, Euskera, Urbanismo y Mantenimiento Urbano, Guardia Municipal, Tráfico y Transportes, Hacienda, Igualdad y el departamento de nueva creación Sociedad de la Información y Participación Ciudadana. A su vez el área de Bibliotecas y Archivo será asumida por EH Bildu, y se establecerá un mecanismo de relación formal y regular con el Departamento de Cultura, al igual que en el caso del Patronato de Erreenteria Musikal cuya presidencia corresponderá a EH Bildu.

EH Bildu tendrá una presencia en la Junta de Gobierno Local de 5 personas y Erreenteria Irabaziz estará representada en este órgano por 2 personas.

Asimismo representantes de ambas fuerzas políticas asumirán la representación del Ayuntamiento de Erreenteria en las distintas Mancomunidades.

5.- MARCO Y SEGUIMIENTO DEL ACUERDO

En el presente acuerdo se recogen las grandes líneas de actuación municipal para los próximos cuatro años. No obstante, este acuerdo no excluye el desarrollo de los proyectos recogidos en los programas de ambas fuerzas políticas, ni los que se pudieran impulsar a lo largo de la legislatura.

Las y los concejales de ambos grupos políticos establecerán los mecanismos de seguimiento de las distintas políticas municipales desde la base de una periodicidad regular del o de los mecanismos que se establezcan.

En Erreenteria, a 11 de junio de 2015





UDAL LEGEINTZALDIRAKO OINARRIEN AKORDIOA

2015-2019

ACUERDO DE BASES DE POLÍTICA MUNICIPAL

Errenerteria
Irabaziz
● ● ●

eh Bildu
Orereta/Errenerteria